

GABONAK ZURETZAT 350 JARDUERA BAINO GEHIAGO ESKAINIKO DITU HIRIKO 17 AUZOTAN

Gabonak iristearekin batera klasiko donostiar bat dator aurten ere: Gabonak zuretzat programa. Duela urte askotatik, programa hau gaztetxoan eta haurren Gabonen osagarri erakargarria da. Aisialdirako aukera askotarikoa, iraunkorra, dibertigarria, solidarioa eta inklusiboa.

Horixe nabarmendu du Donostiako Udaleko Aniztasun, Gazteria eta Gizarteratze zinegotzi Iñigo Garciak: "Donostia Gazteriak aisialdiko elkarteekin, Donostia Kulturarekin eta hiriko beste eragile batzuekin batera diseinatu duen programazioa Donostiako auzo guztietako haur, gazte eta familientzako egun hauetako aisialdi-eskaintza handia izan nahi du. Tailerrak, antzerki- edo magia-ikuskizunak eta bestelako jarduerak abenduaren 14tik urtarrilaren 5era bitartean egingo dira."

350 jarduera baino gehiago eskainiko ditu. Gabonak Zuretzat programaren bidez, haurrek, aisialdia modu dibertigarrian betetzea eta ohitura onak hartu ahal izatea lortu nahi da, eta, batez ere, beste modu batez gozatzea. Helburu horien osagarri, ikasteko eta hainbat balio garatzeko aukera eskaini nahi da, elkartasuna, laguntasuna, sorkuntza, irudimena eta abar.

Helburua hiriko auzoetan aisialdi ez-kontsumistaz gozatzeko aukera emango duen eskaintza ludiko eta kultural zabala eskaintzea da.

Programazioa bi liburuxkatan jasotzen da. Liburuxka horiek online egongo dira, adin-tartean arabera banatuta: bata, haurrentzako (0-11 urte) eta familientzako jardueretarako, eta, bestea, gazteentzako (12-30 urte), www.donostia.eus/gazteria webgunean aurkitu ahal izango dira.

Irudiari dagokionez, programaren aurtengo nortasun grafikoa Usandizagako Diseinu Grafikoko Goi Mailako Prestakuntza Zikloaren eta Donostia Gazteriaren arteko lankidetzari esker sortutakoa da. Diseinu Zikloko 1. mailako ikasleek 15 lan prestatu dituzte. Proposatutako diseinuen artean, programa iragartzeko karteletarako irudi nagusia Unai Oruesagastiren aukeratu da eta kartel hori sare sozialetan, Donostiako autobusetako pantailetan, Flyerretan etab

Haurrentzako programa

Txikienek hamaika jardueraz gozatu ahal izango dute, hala nola mota guztietako tailerrez (sukaldaritzak, zirkua, Gabonetako apaingarriak, etab.), filmen proiektzioez, emanaldiez (magia, dantza, antzerkia, etab.), jolasez eta ipuin-kontalarienez. Hautxokoen udal sarean, jolas eta dibertitzeko ekintza ugari izango dira.

Gainera, bisita bereziak ere jasoko dituzte, Mari Domingirena kasu, Hautxokoetara joango da eta gutunak emateko aukera izango dute.

Donostia Gazteriak hainbat jarduera berezi antolatu ditu programa honen barruan. Hauetariko batzuk izen ematea beharko dute eta abenduaren 12an irekiko dira www.donostia.eus/gazteria web orriaren bitartez:

- Eskalada: abenduaren 26 eta 27an eta urtarrilaren 2 eta 3an, 16:30- 17:30 Pio Baroja kiroldegian.

- Izan arrantzale: baxurako arrantzari eta itsasoari buruz modu dibertigarri eta ludikoan ikasiko dute abenduaren 30 eta 31n eta urtarrilaren 2 eta 3an, 9:00-13:00 Itsas Etxea Kofradian.

- Ekintzak Aquariumen:

- 2 tailer, abenduaren 23an, 10:30ean eta 11:30ean

- Bisita gidatua, abenduaren 30an, 11:00etan

- "Jolastuz programatzen!": programazio tailerra puzzle, blokeekin eta zibersegurtasuna" tailerraren bi talde izango ditugu ere Kode Eskolaren eskutik: bata abenduaren 23, 26 eta 29an, eta bestea abenduaren 30ean eta urtarrilaren 2 eta 3an, 9:30-13:30, Amara Haurtxokoan. Hurrek, Scratch eta minecraft lengoaiak landuz programatzen hasi eta sakontzeko aukera izango dute. Bakoitzak bere esku-ordenadorea eraman behar du. Kasu honetan, izen ematea Kode eskolaren bitartez egingo da hurrengo kontaktuaren bidez: info@kodeeskola.eus edo 943000333.

- Bestalde, jolas eta esperimendazio gune bat eskainiko dugu, Larraitz Esnaola, "Barruan Bada, Barrunba" eta Lalala Soinu Gelaren eskutik. Jarduera hau 0 eta 5 urte bitarteko haurrentzat eta haien familientzat izango da. Haurtxo eta haur txikiarentzat bereziki diseinatutako jarduera da. Abenduaren 30ean izango da Egia Haurtxokoan eta bi saio eskainiko dira: goizean 10:30etatik 12:30etara eta arratsaldean 17:00etatik 19:00etara. Ez da beharrezkoa izena ematea, edukiera bete arte.

- Añorgako eta Igeldoko frontoietan eta Añorga K.K.E eta Igeldoko Herri Kontseiluaren kolaborazioarekin Jolas parkeak egongo dira: puzgarriak, bumperrak, giza futbolina, txutometroa, besteak beste. Igeldokoa, abenduaren 23an izango da 10:30etik 13:30era eta Añorgan abenduaren 27an 17:00etatik 20:00etara. Parke hauek haur eta gazteentzat izango dira.

- Halaber, abenduaren 28an, 16:00etan, 4 eta 15 urte bitarteko hurrek San Silvestre txikian parte hartu ahal izango dute, Amara Kirol elkarteak antolatuta, Donostia Gazteriaren laguntzarekin. Horretarako, www.sansilvestredonostiarra.com webgunean izena eman beharko dute.

Bestalde, San Telmo Museoak, Cristina Enea Fundazioak eta Tabakalerak ere jarduera bereziak antolatu dituzte txikienezat, eta Donostia Kulturak tailerrak eta ikuskizunak eskainiko dituzte, hala nola, "Teilatupean" haur antzerkia Ernest Lluch Kultur Etxean, abenduaren 23an, "Doppiozero" zirko jarduera Egia Kultur Etxean abenduaren 27an edo Okendo Kultur Etxean Tor magoaren "Hator Magiara" abenduaren 27an, besteak beste.

Gazteentzako programa

Gazteentzako jarduerak programatuko dira hiriko auzoetan, hainbat espaziotan:

- Gaztelekuetan LH6tik aurrerako gazteentzako eskaintza berezia prestatu da. Ohiko gabonetako eskaintzaz gain (gabon sukaldaria, apainketa, filmak, eskulanak, mahai jolasak...), jarduera bereziak ere aurki daitezke, horien artean zirku, magia edo laser bidezko arropa kustomizatzeko tailerrak, baita errealitate birtualeko jarduerak, Dj, scape room beldurgarri bat edo scalextric erraldoi bat ere.
- Kontadores Gazte Zentroan, KONPLIZE JAIALDIA, Nuria Culla eta Suite Sedaren kontzertuak eta DONOSSKINO 2024 jaialdiko film labur irabazleen proiektzioa izango dira. Azken honetan Marta Etura izango dugu, film laburren ondorengo eztabaidarako.

Halaber, Donostia Gazteriak jarduera bereziak eta doako tailerrak antolatu ditu, hala nola "Gabon Gazte Txef" Basque Culinary Center-en, baita robotikako edo eskaladako tailerrak ere.

- Gabon Gazte Txef: abenduaren 20an, 16:00- 19:00, Basque Culinary Centerren.
- Eskalada: abenduaren 26 eta 27an eta urtarrilaren 2 eta 3an, 17:30-18:30, Pio Baroja kiroldegian.

Izen ematea irekia egongo da abenduaren 12tik aurrera www.donostia.eus/gazteria web orrian.

- Robotika: Talde bat abenduaren 23, 26 eta 27an eta beste bat abenduaren 30ean eta urtarrilaren 2 eta 3an, 9:30-13:30, Amara Gaztelekuan. Robotikaren oinarriak ikasiko dira robotak eraikiz, martxan jarriz, sentsoreak erabiliz eta hainbat ariketa garatuz. Parte hartzaile bakoitzak bere esku-ordenadorea eramane beharko du.

Kasu honetan, izen ematea Kode Eskolaren bitartez egingo da hurrengo kontaktuaren bidez: info@kode-eskola.eus edo 943000333.

- Abenduaren 23an, Bamboo Dance Schoolen eskutik, hiriko 2 dantza saio ere izango dira, lehena 17:30ean, eta bigarrena 18:30ean, Amarako ARRCO Merkataritza Gunean.
- Escape street: urtarrilak 2 eta 3, 17:00-18:45, Gros eta Parte Zaharreko kaleetan zehar. Izen ematea ondorengo loturan egin daiteke: <https://escapethecity.es/san-sebastian/>
- Abenduaren 29an Urban 13 kolektiboak BREAKING & ALL STYLES txapelketa antolatuko du 16:30etatik aurrera Dabadaban.

Programa prestatzerakoan, honako erakunde eta laguntzaile hauen laguntza eskertu behar da:

- Donostia Sustapena, Donostia Kultura, Cristina Enea Fundazioa, San Telmo museoa, Tabakalera, Donostia Festak, Aquarium Donostia, Euskal Itza Museoa, Kode-Eskola, Basque Culinary Center, ARCCO Merkatal Zentroa, CD Fortuna KE, Escape the City, Bamboo Dance School beste batzuen artean.

Azpiarratzekoa da Donostia Gazteriak jarduera asko egiten dituela auzoetako elkarteekin laguntzari esker. Horiekin artean:

- Altzako Roteta Berri Haurtxokoa, Txomin Eneako Haur txokoa Txomin Enean, Añorga K.K.E Añorgan, Igeldoko Herri Kontseilua Igeldon, ILAE auzo elkarteak Ibaetan, Aratz Gia Taldea Ategorrietan, Larrunarri Eskola Antiguon, Iruzun Taldea Zentroan eta Egian, Mamur Aisialdi Taldea eta Asociación Lúdica Valhalla Amaran, eta Urban 13 kolektiboak Egian.